



WALAFRIDO ESTRABON: *HORTULUS* (ZATI AUKERATUK):  
SARRERA, ITZULPENA ETA OHARRAK

TUTOREA: IÑIGO RUIZ ARZALLUZ

IKASKETA KLASIKOAK



ERKUDEN LASKIBAR GORRIZ  
FILOLOGIA KLASIKOA  
2019/20 IKASTURTEA

## Laburpena

*Hortulusen* euskarazko itzulpenaren inguruan antolatuta dagoen lan hau hiru ataletan egituratzen da: sarrera, testuaren itzulpena eta oharrak.

Sarrera lan hau justifikatu eta ulertzeko beharrezkoak diren aspektuak argitzeko da baliagarria. Hasteko, IX. mendean “Errenazimendu karolingiarraren” eraginpean idatzitako *Hortulusen* testuingurua azaltzeko bere egile den Walafrido Estrabon-i buruzko datu batzuk ematen dira, aurretik bere garaiaren ezaugarriei buruzko zenbait aipamen egiten direlarik. Walafridoren lanen berri ere jasotzen da, nolabait bere obran hobe kokatu dadin olerki honen berezkitasuna. Zeregin honen oinarrian dagoen *Hortulusi* atal bat eskaintzen zaio; eta eskuizkribuei eta transmisioari buruzko zenbait datu ere azaltzen dira. Sarrera atalaren bukaeran lan hau gauzatzeko irizpide eta zailtasunen berri ematen dut, hau da, batik bat zeintzuk izan diren itzulpenaren gakoak: kontzeptuak hitzez-hitz itzultzeko saiakera lehenetsi dela, beti ere euskaraz testu ulergarri eta zuzen bat egiteko ahaleginaz.

Testuari berari dagokionez, egindako euskarazko itzulpenarekin batera, latinezko testua ere ematen da, gaur egun dagoen eguneratuena, Berschin-en ediziokoa (2007). Obrak osotara 444 hexametro dauzka, horietatik 274 bertso itzuli dira lan hau egiteko. Honako hauek dira *Hortulusek* dauzkan hogeita zazpi olerkietatik itzuli ditudan hamasei olerkien izenburuak:

<i>I</i>	<i>De cultura hortorum</i>
<i>II</i>	<i>Difficultas assumpti laboris</i>
<i>III</i>	<i>Instantia cultoris et fructus operis</i>
<i>IV</i>	<i>Salvia</i>
<i>V</i>	<i>Ruta</i>
<i>VI</i>	<i>Abrotanum</i>
<i>VII</i>	<i>Cucurbita</i>
<i>VIII</i>	<i>Pepones</i>
<i>IX</i>	<i>Absinthium</i>
<i>X</i>	<i>Marrubium</i>
<i>XI</i>	<i>Foeniculum</i>
<i>XII</i>	<i>Gladiola</i>
<i>XIII</i>	<i>Lybisticum</i>
<i>XIV</i>	<i>Cerfolium</i>
<i>XV</i>	<i>Lilium</i>
<i>XVI</i>	<i>Papaver</i>

Testuaren ulermenerako lagungarri eta osagarri diren hainbat ohar jaso dira azken atalean. Batzuk testuan agertzen diren leku-izenak, mitologia pertsonaiak edo senda-belar bereziren bat argitzeko erabili dira, hau da, nolabait testuinguru aldaketak eskatzen dituen azalpenak. Beste ohar batzuk itzulpen ariketaren gakoak argitzeko dira baliagarri, glosetak azalpenak gehitzeko batik bat.

Bukatzeko, gehigarri modura, Sankt Gallengo oinplanoa eransten da, bertan Walafridok deskribatzen duen baratzeñoaren eredugarri izan daitekeen gune bat irudikatzen delako. Itzulitako olerkietan agertzen diren landareen irudiak jaso dira ere, lanaren osagarri.

Aurkibidea	
Laburpena .....	1
Sarrera .....	3
Hitzaurrea.....	3
Walafrido Estrabon eta bere garaia .....	3
Walafridoren lanak.....	4
<i>Hortulus</i> .....	5
Olerkiaren transmisioa eta eskuizkribuak.....	6
Lanaren zailtasunak eta irizpideak .....	7
<i>Hortulus</i> Baratzeñoa .....	9
I Baratzeko lanei buruz ( <i>De cultura hortorum</i> ).....	9
II Hartutako lanen zailtasuna ( <i>Difficultas assumpti laboris</i> ).....	10
III Lorezainaren ardura eta lanaren emaitza ( <i>Instantia cultoris et fructus operis</i> ) .....	12
IV Salbia ( <i>Salvia</i> ) .....	13
V Erruda ( <i>Ruta</i> ) .....	14
VI Zizare-belarra ( <i>Abrotanum</i> ).....	15
VII Kuia ( <i>Cucurbita</i> ).....	16
VIII Meloiak ( <i>Pepones</i> ).....	19
IX Asentsioa ( <i>Absinthium</i> ).....	21
X Lekugia ( <i>Marrubium</i> ) .....	22
XI Mihilua ( <i>Foeniculum</i> ).....	23
XII Ezpata-belarra ( <i>Gladiola</i> ).....	24
XIII Mendi-apioa ( <i>Lybisticum</i> ).....	25
XIV Perrexila ( <i>Cerfolium</i> ) .....	26
XV Zitori arrunta ( <i>Lilium</i> ) .....	27
XVI Lo-belarra ( <i>Papaver</i> ) .....	28
Oharrak .....	29
Bibliografia .....	32
Gehigarria .....	33
Sankt Gallen abadiako planoak .....	33
<i>Hortulusen</i> IV-XVI olerkietan aipatzen diren landareen irudiak .....	35

## Sarrera

### Hitzaurrea

Ezer baino lehenago esan beharra dago, azkeneko hilabeteetako ez-ohizko osasun egoerak lan hau gauzatzeko modua baldintzatu duela. Eragozpen aipagarriena liburutegiez ezin baliatu ahal izatea izan da, hori dela eta kontsultatzea interesgarri zitekeen hainbat obra erabili gabe gelditu dira.

Gradu amaierako lan honen helburua honako hau da: Walafrido Estrabon izenez ezaguna den IX. mendeko fraide beneditar batek idatzitako olerki baten itzulpena egin, eta obra ulertzeko beharrezkoak diren datuak aukeratu eta garatzea. *De cultura hortorum* da hexametroetan idatzitako obra honen izenburua, baina *Hortulus* izenez ezagunagoa egin zen bere transmisioaren hasieratik.

Olerki bilduma honen muina landare ezberdinei eskainitako hogeita hiru olerki dira. Aurretik, baratzen egin beharreko lanei buruzko gogoetei hiru olerki eskaintzen dizkie Walafridok; eta bukaerako olerkia bere irakasle den Grimaldori.

Aukera hau egitera erakarri nauten arrazoiak bi izan dira. Batetik Filologia Klasikoko espezialitatean egindako lana izaki, lan honen oinarrian itzulpen bat izatea aproposa iruditu zait. Gainera, testu honen ez euskarazko ezta gaztelerazko itzulpenik ez egoteak bereziki bultzatu nau aukera hau egitera. Ikasketa hauen berezitasun nabarmenetako bat da latinean edo grekeran dauden testuak ulertu eta modu aproposan gure hizkuntzetan ulergarri egitea, hau da, erabilgarri egitea, transmititzea.

Bestalde, nahiz eta azken hamarkadetan Goi Erdi Aroko literatur ikerketak nabarmen ugartu diren, argi dago hutsune asko betetzeko daudela, eta filologiaren arloan agerikoa da hori ere, edozein hizkuntza eta alorretan Erdi Aroko latin literatura oso ezezaguna baita. Horri aukeratutako idazkiaren gaiaren berezitasuna gehitzen badiogu, literaturaren historian bigarren mailakotzat hartu izan ohi diren gaien multzoan kokatzen gara. Hala ere ezin uka xarma berezi bat daukanik *Hortulusen* gaiak eta tratamenduak berak.

### Walafrido Estrabon eta bere garaia

Latin hizkuntzari dagokionez IX. mendean maila altuago bat lortu zen gramatika ikasketetan, antzinako idazleen irakurketen eskutik, Eliz gurasoekin batik bat, baina baita Zizeron eta Virgiliorekin ere, San Jeronimoren Vulgata-ren jardun ohikoarekin batera. Testuinguru honek goi mailako latin hizkuntza jakintsu bat ahalbidetu zuen, idatzizkoa, baina baita hitz egina ere: errege erreginen eta Aita Santuen kantzilergoen arteko hizkuntza, eliz-gizon bidaiariena ere, eta ondoren sortuko ziren unibertsitateetako ere bai.<sup>1</sup>

Kulturaren eta literaturaren ikuspegitik, Walafridorekin hainbesteko lotura izan zuen Reichenauko monasterioak, “Errenazimendu karolingiarra” izendatua izan den berrikuntza mugimenduaren barnean, lidertza garrantzitsua izan zuen Fulda, Sankt-Gallen eta Lorsch bezalako beste monasterio batzuekin batera.

---

<sup>1</sup> Atal hau osatzeko erabilitako iturriak honako hauek izan dira: Brunhölzl (1991), Raby (1934) Vázquez de Praga (1948), (Vélez 2018) eta Stella (2009).

Reichenauko Walafrido (*Strabo* ezizenez ezaguna, hau da begi-okerra), Karlomagnoaren erregetzaren azken urteetan jaio zen, 809. urtearen inguruan, egungo Alemaniaren hego-mendebaldean, Konstantza aintziraren eremuan. Zortzi edo bederatzirente zituela Reichenauko monasterioan utzi zuten gurasoek elizgizon izan zedin; bertan latina ikasi eta monasterioko bizitzarako prestatu zuten.<sup>2</sup>

827. urtearen inguruan Walafrido, bere sormenerako abilezia zela eta, Fuldako monasteriora bidali zuten teologia ikasketetan sakontzen jarrai zezan, eta Rabano Mauro ezaguna izan zuen irakasle<sup>3</sup>. Eta 829an, Saint Denis monasterio errealeko abade zen Hilduinok Ludoviko Pio enperadorearen Akisgrango gortera bidali zuen Walafrido, haren semearen (Frantziako errege izango den Karlos printzea) tutore izateko, bertan hamar bat urte eman zituelarik.

838. urtean Ludoviko Pio enperadoreak Reichenauko abade izendatu nahi izan zuen Walafrido, gortean egindako lanarengatik esker ona adierazteko; baina izendapena bertan behera geratu zen Ludoviko Pio-ren hiru semeen arteko oinordetzek sortutako liskarrak zirela eta. Hala ere 842. urtean Reichenaura itzuli eta abade kargua hartu zuen bere heriotza arte (849). Haren gorpua abadian lurperatu zuten, Rabano Maurok idatzitako epitafioak hilobia edertzen zuelarik. Walafridok izan zuen estimazioaren adibide on dira epitafioaren hitz hauek: “olerkari, idazle, apaiz eta fraide, abade, gorteko irakasle eta zuzentasunaren adibide”.<sup>4</sup>

Baita bere abileziaren adibide diren beste hauek ere:

*nam docuit multos, metrorum iure peritus  
dictavit versus, prosa facundus erat*<sup>5</sup>

### Walafridoren lanak

Bere lanaren aberastasunagatik, “Errenazimendu karolingiarreko” olerkari garrantzitsuenen artean kokatzen da Walafrido. Bere idatzi gehienek erlijioaren inguruko gaiak tratatzen dituzte: liturgia kantuak, fedeari eskainitako mota desberdinetako olerkiak; baina baita beste gai batzuk lantzen dituzten prosa lanak ere: ohitura erlijiosoen inguruko kontakizunak, elizari buruzko hausnarketak, Bibliari buruzko pasarteen glosa bildumak, hagiografiak, eta baita Eginardoren *Vita Caroli Magni*-ren prologoa bezalako lanak, beste hainbaten artean. Hona hemen bere obra garrantzitsuenen zerrenda:<sup>6</sup>

- *Glossa ordinaria* (vid. infra)
- *De exordiis et incrementis quarundam in observationibus ecclesiasticis rerum*

---

<sup>2</sup> *Walafridus* izena da Reichenauko agiri ofizialetan jasotzen dena. *Strabo* ezizena berorrek aitortzen du *De imagine Tetrici* (829). Hamabost urte zituela harrituta utzi omen zituen bere monje-kideak *Visio Wettini* olerki lana idatzi zuenean.

<sup>3</sup> Alkuino Yorkekoa izan zuen irakasle Rabano Mauro-k. Fuldako abade izan zen, eta 847an Mainzeko artzapezpiku izendatu zuten. Praeceptor Germaniae ere izendatu zuten.

<sup>4</sup> Hraban. Maur., *Carmina*, LXXXVIII, in *Poetae Latini aevi Carolini*, ed. E. Dümmler, Weidmann, Berlin, 1884 [*Monumenta Germaniae Historica*], II, 154-258, 239 or.

<sup>5</sup> Hraban. Maur., *Carmina*, LXXXVIII, 7-8, apud Brunhölzl (1991: 105).

<sup>6</sup> Walafridoren obrari buruzko bibliografia zabala jasotzen du Brunhölzl-ek (1991: 287-290): Dümmler-ek 1884an MGHan egindako edizioak, Walafridok Sankt Gallen-en bildutako zenbait eskuizkribu sortei buruzko Bischoff-en lana (1950), Barabino-ren *Hortulus*-en iturri klasikoei buruzko ikerketa (1975), eta beste hainbat mota anitzetako liburu eta bilduma.

- *De expositione missae*
- Eginardo-ren *Vita Karoli Magni*-ren hitzaurrea
- Thegan-en *Vita Ludovici*-ren hitzaurrea
- *Visio Vettini*
- *De vita et fine Mammae monachi*
- *Versus de beati Baithmaic vita et fine*
- *De imagine Tetrici*
- *De cultura hortorum*
- *Vita Sancti Galli*

Bere garaian eta ondorengo urteetan Walafrido nabarmentzea gauzatu zuten obren artean ez dago gure *Hortulus*, Bibliari egindako iruzkinen (*Glossa ordinaria*) ustezko autore izateak eragin haundiago izan zuen zalantzarik gabe<sup>7</sup>. Brunhölzl-ek (1991: 103) zehazten du *Glossa ordinaria* Walafridori egotzi izan bazaio ere, frogatu egin dela hauen zati oso txiki baten egile izan zela soilik (Bibliari buruzko iruzkin partzial batzuk moldatu zituela).

Walafrido bere olerkiak konposatzeko gaitasunagatik izan da bereziki goraiatua, baita bere modu pertsonal eta dotoreagatik ere. Bere lehenengo obran, *Visio Vettini*, Reichenau-ko fraide eta Walafridoren irakasle izan zen Vettiren bidaia kontatzen du —nora eta beste mundura: Infernura eta Paradisura—<sup>8</sup>. *Vita et finis Mammae monachi*, *Versus de beati Blathmaic vita et fine*, *Vita Othmari*, *De imagine Tetrici* dira bertotan egindako bere obra ezagunen izenak; hauen artean dago lan hau egiteko aukeratu dugun *Hortulus*, edizio eta itzulpen garaikide gehien izan dituen obra (Stella 2009: 12-13)

### *Hortulus*

*Hortulus*, Walafridoren obrarik berantiarrena, bere gaiaren ikuspegitik (lurraren landaketa eta landareak) latindar genero didaktikoan sailkatzen da, baina bere tratamenduagatik Virgilioren Georgiketarik eta Kolumelaren X. liburutik bereizten dituen elementuak dauzka (Jacobsen 2003: 112). Nahiz eta lehenengo hiru olerkietan baratzeko lurraren prestaketa arruntei buruz jardun, obraren funtsa jarraian datozen hogeita hiru landare desberdinei eskainitako olerkiak dira. 444 hexametrotz osatutako bilduma bere maisuari, Grimaldori, eskainitako olerki pertsonal batez bukatzen du.

Landareei eskainitako olerkietan ere ez du patroia berbera errepikatzen: batzuetan Musen babes-erregua eskatuz hasten da, besteetan etimologiari buruzko aipamenekin edota bere taxonomiaren bereizgarriaren batekin, mitologia klasikoari ere egiten dio erreferentziaren bat. Beti agertzen diren elementuak landarearen ezaugarri fisikoren bat eta bertute sendagarrien azalpenak dira.

*Hortulus*en nabarmena da Walafridok irudiak sortarazteko duen ahalmena eta bizipenak helarazteko duen gaitasun poetikoa, sarritan landareen pertsonifikazioaren bitartez lortzen du zirrara hori. Ikuspuntu formaletik bere bertsogintzarako trebetasuna

---

<sup>7</sup> Gennari (2017: 14).

<sup>8</sup> *Visio Vettini* Danteren *Comediaren* aitzindari goiztiartzat hartzen da, Mendebaldeko Europan mota horretako lehenengo kontakizun poetikoa izateagatik (Brunhölzl 1991: 106).

goraipatzen da, baita bere komentuko baratzeko bizipenak eta ondare klasikoa jaso eta uztartzeko duen abilezia.<sup>9</sup>

Kolumela idazle betikarraren *De cultu horticorum* izenburua *Hortulus*-en oinarrian dagoela ematen duen arren, Barabinok (1975: 176) argi uzten du Walafridoren lanak IX. mendeko jakituria zientifiko-literarioaren iturrien ikuspegi anitza eman diezagukela; eta Walafridok Kolumelaren lana Dioskorides, Galeno, Plinio Zaharra eta Pseudo-Apuleioren lanak bezainbat erabili zituela bere olerkietarako informazio iturri bezala, beste askoren artean.

Beste iturri aipagarri bat Karlomagnoaren *Capitulare de villis* da, 771-800 urteen artean idatzitako testu bat, zeinetan estatuaren jabetzan zeuden etxaldeek jarraitu beharreko betekizunak biltzen ziren. Baratzetan jartzea komeni zen landareak zehazten zituen testu honek, eta *Hortulus*en agertzen diren landare asko daude bertan (Vélez 2018: 10).

Erdi Aroan idatzitako lehenengo obra botanikoak, *Hortulusek*, apenas lortu zuen zabalkundea bere garaikideen artean. Bere erabilpen literarioaren lehenengo testigantza XI. mendean topatzen dugu, *Macer Floridus* izenez ezagunagoa den Odo von Meugen *De viribus herbarum* obran.<sup>10</sup>

#### Olerkiaren transmisioa eta eskuizkribuak

Ahantzura luzea izan zuen *De cultura horticorum*-ek, Vadian (Joachim von Watt) humanista suitzarrak 1510. urtean Sankt-Gallen-en aurkitu eta edizio batzuk zabaldu zituen arte.

Walafridoren olerkiaren dohainak ugariak izan arren, Erdi Aroan zehar nekez izan zuen hedapenik (aipatutako *Macer Floridus*-ez gain). XV. mendetik aurrera Italiatik abiatu zen humanismo kultura-mugimenduak olerki didaktiko berezi honen xarma estimatzeko abagunea eskaini zuen.<sup>11</sup>

1527. urtean, Basilean, Odo von Meungen *De viribus herbarum* -en edizioari *Hortulus* gehitu zitzaion eranskin modura; eta 1530. urtean Friburgon iruzkinak —*Scholia in Strabi Hortulum*— erantsi zitzaizkion.

Beste edizio batzuen ostean, 1884. urtean Ernst Dümmler-ek *Monumenta Germaniae Historica* jaso zuen, eskuizkribuak bildu eta lan filologiko osoa egin ostean.

Gorde zaizkigun bost eskuizkribuak honako hauek dira:

- C      Città del Vaticano, Biblioteca Apostolica Vaticana, Reg. Lat. 469 (ca. 850)
- L      Leipzig, Universitätsbibliothek, Rep. I 53 (X. mendea)


---

<sup>9</sup> Walafridok ederki menderatzen zituen hizkuntza adierazpen teknikak, horregatik izan zen “Errenzaimendu karolingiarra”ren erakusle; garai hartan ohikoa zen bezala Virgilio eta Ovidio izan zituen eredu gogokoenak. Prudenzi bezalako poeta kristauen lanak ere ezagutzen zituen, baita Boeziorenak ere. (Brunhölzl 1991: 105).

<sup>10</sup> Erdi Aroan *Hortulusek* zabalkunde murrizta izan arren, Walafridok eragina izan zuen beste obra batzuen bidez. Eragin horren adibide da, Reichenautik gertu dagoen Sankt Gallen monasterioan, Walafridoren eragin eta zaintzapean Notker Balbulok garatutako obra liriko garrantzitsua, baita IX. mendearen bigarren erdialdean hasiera eman zion eskola poetikoa ere (Vélez 2018:15).

<sup>11</sup> Brunhölzl (1991: 110)

- K Città del Vaticano, Biblioteca Apostolica Vaticana, Palat. Lat. 1519 (X-XI. mendea)
- M München, Bayerische Staatsbibliothek, Clm 666 (1463)
- A Augsburg, Staats- und Stadtbibliothek, 2° 133 (1479)



1. Eskuizkribuen banaketa (Berschlin 2007: 29).

Bost eskuizkribuen arteko aldeak txikiak dira eta haien arteko loturak, irudian ikusi daitezkeen bezala, oso argi daude.

XX. mendean *Hortulus* alemaniarara, ingelesera, frantsesera eta italierara itzuli zen. 2018. urtean, lan honetarako eredugarri eta oso baliagarri izan den Vélez Latorreren gailegozko itzulpena argitaratu zen. Gure lan hau (itzulpena batik bat) egiteko erabili dugun edizioa Berschin-ena (2007) da, gaur egun dagoen berriena eta oraingoz autoritate gehien duena.

### Lanaren zailtasunak eta irizpideak

“Itzulpen batek ez du oinarritzko testuak esaten duena baino gehiago esan behar, hau da, iturriaren erretizentziak errespetatu behar ditu”

(Vinçon 2003: 426)

Itzulpen bat egiterakoan erabaki asko hartu beharra dago, batzuk ondo pentsatutakoak dira, beste batzuk ez hainbeste, eta nahi baino gehiagotan zeharo asetzen ez gaituzten bideak hartu beharrean ikusten dugu geure burua. Vinçon-en aipu honek ederki biltzen du zein izan den itzulpen honen oinarrietako bat: itzulpen exegetikoa saihesten saiatzea. Ez da ariketa xamurra eta behin betikoa itzulpenaren zeregina.

Lana planteatu zen une beretik aurreikusi zen, testuaren zailtasunak baldintzatuta, *Hortulus*en itzulketa zati batera mugatuko zela; eta hala izan da, hogeita zazpi olerkietatik lehenengo hamaseiak landu ditut. Lan honen helburuetatik kanpo geratu da, derrigor,



Walafridoren hexametroak bertsotan itzultzea, jatorrizko testua are gehiago itxuraldatzea ekarriko bailuke.<sup>12</sup>

Euskararen berezkotasunera latinezko testu poetiko bat moldatzearen zailtasunak agerian geratu dira, batik bat egitura sintaktikoen izaera desberdinagatik. Halaber, baieztatu dezaket itzulpena jatorrizko idazkiarekiko ahalik eta fidelen izaten saiatu naizela, testua ahalik eta modu zehatzenean jarraituaz, ulergarritasuna bistatik galdu gabe, eta euskararen egiturei egokituz. Horregatik ezinbestekoa izan da ohar batzuk idaztea, gaur egungo irakurlekoari testuaren zenbait gako azaltzeko.

Berschin-en edizioan oin-oharretan jasota dauden eskuizkribuetako glosak, oso lagungarri egin zaizkit maiz itzulpena bideratzeko orduan, argigarriak baitira testua hobeto aztertu eta ñabardurak antzemateko garaian.

Zein ohar ziren beharrezko erabakitzeak bi irizpide hartu ditut kontuan batez ere. Lehenik itzulpenean laguntzeko gehien erabili ditudan bi itzulpen-lanen oharrak ereduagarri izan zaizkit, Velez eta Gennari-renak. Eta noski, gai hauetan aditua ez den egungo irakurlearen azalean jarrita, ulermenari ihes egin ziezaioketen elementuetan jarri nahi izan dut arreta. Bigarrenik, Berschin-ek jasotako glosa eta aldaerak argigarri iruditu zaizkidanean, oharretan nolabait azaltzeko hautua egin dut.

Landareen inguruan datzan testua euskaratzeak, euskaraz botanikaren arloan egindako lanen baten erreferentzia beharra zekarren. Horregatik, lan honen tutoreak gomendatuta, Lakoizketa<sup>13</sup>ren *Diccionario de los nombres euskaros de las plantas en correspondencia con los vulgares, castellanos y franceses y científicos latinos* hiztegia erabili dut euskarazko izenak kontsultatzeko.<sup>14</sup>

Apaiz eta botanikari nafarraren hiztegiak, Walafridoren olerkietako landareen euskarazko izenak hautatzeko garaian, egokiagoak ziren aukerak egiteko abagunea eman digu. Adibidetzat baliagarria da lirio arruntaren kasua: Walafridok bere olerkian landare honen izena *gladius*-arekin (erromatar ezpata) erlazionatzen du, eta Lakoizketak, euskarazko izenen artean *ezpata-belarra* jasotzen du bere hiztegian, eta baita azaldu ere bere hostoen itxuragatik ematen diotela askok izen hori.

Euskarazko landareen izenekin batera, Linneo-ren nomenklatura binomialari jarraiki erabiltzen den terminologia botanikoa ere jaso nahi izan dut, Barabinoren lanaren irizpideak kontuan harturik.

---

<sup>12</sup> Walafridoren goi mailako latin poetikoari lantzen duen gaiaren berezkotasuna erantzen zaio zailtasun bezala.

<sup>13</sup> Mundu akademikoan ipar penintsulako flora-kriptogamen maisurik handientzat aintzat hartua izan zen; eta merituongatik, Botanikarako Frantziar Sozietateko (1877) eta Natura Historiaren Espainiar Sozietateko kide (1880) izendatu zuten (Añamendi Eusko Entziklopedia 2020: <http://aunamendi.euskonikaskuntza.eus/eu/lakoizqueta-santesteban-jose-maria-de/ar-84178/> [2020/05/18])

<sup>14</sup> Ezin izan dut Gil Bera-k 1994.ean Lakoizketaren hiztegiari buruz egindako lana kontsultatu liburutegiak itxita egoteagatik.

## I Baratzeko lanei buruz

Bizitza lasai baten zantzuak ugariak izanik, ez da txikiena, Pestumgo<sup>1</sup> arteari helduta, Priapo<sup>2</sup> lizunaren zaintza ezagutzea.

Edozein motatako lursaila baldin baduzu, jakin ezazu zure baratzeak ez diola utziko fruitu naturalak emateari: berdin dio lurra banakatua bada eta hartxintzarren arrasto aretsuaz zaildua ala fruitu mardulak ematen baditu bere hezetasun lodiz; berdin dio garaiera handiko muinen gainaldean badago, ordoki aldapatsu zabal batean ala pendizean behera haran artean.

Horrela izango da baldin eta zure jarrera, utzikeria astun batek lotua eta harrokeriak puztua, ohitzen ez bada ortuzainaren zeregin ugariei muzin egitera, uko egiten ez badio esku maskurtsuak burni gogorrez zikintzeari eta ez badu saihesten ongarria saski beteka botatzea lur idorrean.

Gauza hauek ez dizkit erakutsi herri xehearen jakituriaren iritziak bakarrik, ezta liburu zaharretan bilatutako irakaspenak ere: lanak eta zaletasunak egin naute aditu, gauzak frogatuz, egun askotako aisialdi luzeak haien mesedetan baztertu ondoren.

## I

*De cultura hortorum*

*Plurima tranquillae cum sint insignia vitae,  
Non minimum est, si quis Pestanae deditus arti  
Noverit obsceni curas tractare Priapi.  
Ruris enim quaecumque datur possessio, seu sit  
5 Putris, harenoso qua torpet glare tractu,  
Seu pingui molita graves uligine foetus,  
Collibus erectis alte sita, sive iacenti  
Planitie facilis, clivo seu vallibus horrens,  
Non negat ingenuos holerum progignere fructus,  
10 Si modo non tua cura gravi compressa veterno  
Multiplices holitoris opes contempnere stultis  
Ausibus assuescit, callosasque aere duro  
Dtrectat fuscare manus et stercora plenis  
Vitat in arenti disponere pulvere qualis.  
15 Haec non sola mihi patefecit opinio famae  
Vulgaris, quaesita libris nec lectio priscis,  
Sed labor et studium, quibus otia longa dierum  
Postposui, expertum rebus docuere probatis.*

## II Hartutako lanen zailtasuna

Negua (zahartzaroaren bidelaguna, urte osoaren sabela eta lan luzearen suntsitzaile bihozgabea), udaberriaren etorrerak bultzaturik, lurrazpiko gordeleku sakonetara ezkutatu zen; eta udaberria, sasoen lehenengo burua eta urtearen ohorea, prestatzen ari zen negu latzaren arrasto krudelak suntsitzeko, ordena naturalaren handitasuna berreskuratzeko eta lursail makaldueti euren antzinako distira itzultzeko. Haize garbia ere egun barea zabaltzen hasia zen eta belar eta loreek, Zefiro<sup>3</sup> haizeari jarraiki, jada luzatzen zituzten sustraien mutur kikilduak, ordura arte barrunbe itsu eta gordean izandakoak eta, dagoeneko, izotz zuriaz aspertuta. Orobat, basoak hostoz bete ziren, mendiak landare ederrez, eta larre alaietan berde kolore ikusgarria nagusitzen ari zen. Eta orain, ene ate aurrean sortalderantz begira dagoen sarbide irekiko eremu txikia, atrioa, asunez bete da, pozo mingarria duten dardoak lurrazal txikian barna hazi direlarik.

Zer egin nezake? Asun haien sustraien azpiko uztardura trinkoa zen oso: halakoak dira ukuiluaren jabeak zume itsaskorrekin trebeki ehuntzen dituen kanaberazko kereta orlegiak, zaldiari apatxa hezetasunagatik kaltetzen zaionean eta, bigunduta, onddo ustelen itxura hartzen duenean.

### II

#### *Difficultas assumpti laboris*

*Bruma senectutis vernacula, totius anni*  
20 *Venter et ampliflui consumptrix saeva laboris,*  
*Veris ubi adventu terrarum pulsa sub imas*  
*Delituit latebras, vestigiaque horrida avarae*  
*Ver hiemis reduci rerum delere pararet*  
*Scemate, et antiquo languentia rura nitore*  
25 *Reddere, ver orbis primum caput et decus anni,*  
*Purior aura diem cum iam reserare serenum*  
*Inciperet, Zephirosque herbae floresque secuti*  
*Tenuia porrigerent radicis acumina, caeco*  
*Tecta diu gremio, canasque exosa pruinas,*  
30 *Cum silvae foliis, montes quoque gramine pingui,*  
*Prataque conspicuis vernarent laeta virectis,*  
*Atriolum, quod pro foribus mihi parva patenti*  
*Area vestibulo solis convertit ad ortum,*  
*Utriculae implerunt, campique per aequora parvi*  
35 *Inlita ferventi creverunt tela veneno.*  
*Quid facerem? tam spissus erat radicibus infra*  
*Ordo catenatis, virides ut texere lentis*  
*Viminibus crates stabuli solet arte magister:*  
*Ungula cornipedum si quando humore nocetur*  
40 *Collecto et putres imitatur marcida fungos.*

Beraz, geldialdia amaitutzat emanaz, Saturnoren hortza<sup>4</sup> hartu eta lurreko zokorrekin hasten naiz: bere kabuz birsortutako asunen besarkadei indarrez kentzen dizkiet ezindutako lursailak eta satorren itzalpetako gordelekuak suntsitzen ditut, zizareak argiaren mugetetara ekarriaz.

Hortik aurrera Noto<sup>5</sup> haize ufadek eta eguzkiaren beroak baratzea lehortzen dute eta, lurra barreiatu ez dadin, egur karratuez inguratuta jaso eta goratu egiten da apur bat; sail osoa aitzur okerrez desegiten da xehe-xehe eta zimaurren hartzigarria botatzen zaio gaineratik.

Barazki batzuk hazien bitartez sorrarazten saiatzen gara; beste batzuei, berriz, euren antzinako gaztetasuna itzultzen diegu sustrai zaharrak berreskuratuz.

*Ergo moras rumpens Saturni dente iacentes  
Aggredior glebas, torpentiaque arva revulsis  
Sponte renascentum complexibus urticarum  
Erigo et umbricolis habitata cubilia talpis  
45 Diruo, lumbricos revocans in luminis oras.  
Inde Nothi coquitur flabris solisque calore  
Areola et lignis ne diffluat obsita quadris  
Altius a plano modicum resupina levatur,  
Tota minutatim rastris contunditur uncis,  
50 Et pinguis fermenta fimi super insinuantur.  
Seminibus quaedam temptamus holuscula, quaedam  
Stirpibus antiquis priscae revocare iuventae.*

### III Lorezainaren ardura eta lanaren emaitza

Azkenean udaberriko euriak gure lursail txikia ureztatzen du noizean behin eta ilargi leunak, bere aldetik, mesede egiten die hosto xamurrei; aldiz, sasoi lehorrek ihintzaren laguntza ukatzen zutenean, nekazaritzarenganako maitasunak bultzatuta (kimu xamurrak, egarrituta, galduko ez ote ziren beldur) gogotik arduratu nintzen ur gardena ontzi zabaletan garraiatu eta ene eskuez tantaka botatzeaz, isuri indartsuegi batek ez zezan bat-batean ur gehiegi eraman eta bertan ereindako haziak mugitu.

Berandu gabe, baratze osoa betetzen da belarki xamurrez. Teilatupe altuaren azpian dagoen hemengo zati hau lehortu eta zarpaildu egingo da, ez baitu jasotzen euriaren eta airearen onura; eta hango beste zati hura eguzkia jaso gabe geratuko da, adreiluzko horma altuegiak bere albo gogorraz gerizpean utzi eta suzko izarraren onura galarazten diolarik. Baina hala eta guztiz ere, haren kontu lagatako hazi edo landare guztietatik, bat ere ez du utziko baratzeak hazteko itxaropenik gabe belardi alferraren azpian. Are gehiago: ia-ia lehortuta eta berariaz egindako zuloetara aldatuta jaso zituen haziak ere, baratzeak berreskuratu egin ditu, berde berrituaz beteak eta fruitu ugarietz hornituz.

Orain behar da trebetasuna, orain bihotz malgua eta hitz-abilezia, hain uzta handiaren izen eta indarrak eskuratu ditzadan, gauza apalak ohore handiz jantzi daitezten.

### III

#### *Instantia cultoris et fructus operis*

*Denique vernali interdum conspergitur imbre  
Parva seges, tenuesque fovet praeblanda vicissim  
55 Luna comas; rursus si quando sicca negabant  
Tempora roris opem, culturae impulsus amore,  
Quippe siti metuens graciles torpescere fibras,  
Flumina pura cadis inferre capacibus acri  
Curavi studio, et propriis infundere palmis  
60 Guttatim, ne forte ferocior impetus undas  
Ingereret nimias, et semina iacta moveret.  
Nec mora, germinibus vestitur tota tenellis  
Areola et quamquam illius pars ista sub alto  
Arescat tecto, pluviarum et muneris expers  
65 Squaleat aerii, pars illa perennibus umbris  
Diffugiat solem, paries cui celsior ignei  
Sideris accessum lateris negat obice duri,  
Non tamen ulla sibi fuerant quae credita pridem  
Spe sine crementi pigro sub cespite clausit.  
70 Quin potius quae sicca fere et translata subactis  
Suscepit scrobibus, redivivo plena virore  
Restituit, reparans numeroso semina fructu.  
Nunc opus ingeniis, docili nunc pectore et ore,  
Nomina quo possim viresque attingere tantae  
75 Messis, ut ingenti res parvae ornentur honore.*

#### IV Salbia (*Salvia officinalis*, *Salvia tomentosa*)

Salbia<sup>6</sup> baratzeko sarreran bertan gailentzen da: usain gozokoa, dohain garrantzitsuen jabea eta edateko mesedegarria.

Gizasemeen gaixotasun askorentzako onuradun aurkitua, gaztetasun berdeaz betiko gozatzea merezi izan du.

Baina guda zibil bat jasaten<sup>7</sup> du bere baitan: lore berri ankerrek, mozten ez badira, gurasoak lehortzen dituzte eta, bekaizkor, adar zaharrak agortzen dituzte.

#### IV Salvia

Lelyfagus prima praefulget fronte locorum,  
Dulcis odore, gravis virtute atque utilis haustu.  
Pluribus haec hominum morbis prodesse reperta  
Perpetuo viridi meruit gaudere iuventa.  
80 Sed tolerat civile malum: nam saeva parentem  
Progenies florum, fuerit ni dempta, perurit  
Et facit antiquos defungier invida ramos.

## V Erruda (*Ruta graveolens*)

Zeru-koloreko errudek osatutako txaraka guztiz orlegiak margoztatzen du baso laiotz hau: hosto txikiz hornituta, guardasol motzak jaurtikiz, zurtoinen behealderaino uzten die pasatzen Feboren<sup>8</sup> izpiei eta haizearen ufadei, eta ukitze soilak usain bizi bat barreiatzen du.

Landare hau, sendabide anitzen jabe izaki, bereziki eraginkorra omen da ezkutuko pozoiak ekiditen eta pozoia eta minak kanporatzen dagoeneko hartuak dauden barrunbeetatik.

### V *Ruta*

*Hoc nemus umbriferum pingit viridissima rutae  
Silvula ceruleae, foliis quae praedita parvis  
85 Umbellas iaculata breves, spiramina venti  
Et radios Phoebi caules transmittit ad imos,  
Attactuque graves leni dispergit odores.  
Haec cum multiplici vigeat virtute medellae,  
Dicitur occultis adprime obstare venenis  
90 Toxicaque invasis incommoda pellere fibris.*

## VI Zizare-belarra (*Artemisia Abrotanum*)

Ez da zailago mirestea goraka hazten den zizare-belarraren kimuak eta adaxken ugaritasunak antolatzen dituen galburuak, ile finak izango balira bezala.

Landare honen adats usaintsua zurtoin malguekin batera hartu eta Apoloren<sup>9</sup> sendabideekin nahastea baliagarria da oso: sukarrari aurre egiten dio, ziztadak uxatu eta hezueria iheskorren min ezezagunak jotako artikulazioei laguntzen die. Guzti honetaz gain, adarretan hostoak bezain ugariak ditu zizare-belarrak dohainak.

### VI *Abrotanum*

*Nec minus abrotani promptum est mirari et alte  
Pubentis frutices et quae inspicat aristas  
Ramorum ubertas, tenues imitata capillos.  
Huius odoratum lento cum vimine crinem  
95 Poeniis carptum prodest miscere medellis.  
Febribus obstat enim, telum fugat, adiuvat artus,  
Quos incerta premit furtivae iniuria guttae.  
Praeterea tot habet vires quot fila comarum.*



## VII Kuia (*Cucurbita lagenaria*)

Era berean kuiak, hazi xume batetik gora igoz, altuera maite du, bere hostoen ezkutuekin itzal handiak sortzen ditu eta adartxo ugarien bidez kiribilak jaurtikitzen ditu.

Huntzak zumar altua bere hostoez katramilatzen du eta lurraren ohantzetik abiatuta bere beso malguak jartzen dizkio inguruan enbor osoari eta, goiko puntaraino jarraiki, zeharo estaltzen dizkio azalaren ximurak soineko berde batez. Orobat zuhaixken familiako den mahatsondoa ere, edozein zuhaitzen laguntzarekin zabaltzen denean, adarren gaikaldea kiribilez jantzi eta bere senari jarraiki behetik gora igotzen denean (horregatik antzeman daiteke mahats-mordo gorri bat zintzilik berez ez dagokion lekuan, Bakok adar berdeak zapaltzen ditu eta mahatsondoaren kimu zabalak zuhaitzaren adaxka altuak bereizten ditu). Hauek bezalaxe, jatorri ahuletik sortu den ene kuiak maite ditu eskaini zaizkion euskarriak, bere sostenguak, eta haltzei heltzen die hatzapar okerreaz.

### VII *Cucurbita*

- 100 *Haud secus altipetax semente cucurbita vili*  
*Assurgens, parmis foliorum suscitatur umbras*  
*Ingentes, crebrisque iacit retinacula ramis.*  
*Ac velut ulmum hedera implicuit cum frondibus altam,*  
*Ruris abusque sinu toti sua brachia circum*  
*Laxa dedit ligno, summumque secuta cacumen*
- 105 *Corticis occuluit viridi tutamine rugas:*  
*Aut arbustivum vitis genus, arbore cum se*  
*Explicuit quavis, ramorumque alta corimbis*  
*Vestiit, et propria sursum se sponte levavit-*  
*Visitur ergo rubens aliena in sede racemus*
- 110 *Dependere, premit tabulata virentia Bachus,*  
*Pampinus et frondes discernit latior altas-*  
*Sic mea sic fragili de stirpe cucurbita surgens*  
*Diligit appositas, sua sustentacula, furcas,*  
*Atque amplexa suas uncis tenet unguibus alnos.*

Eta zurrumbilo anker batek erauzi ez dezan, kimuak sortzen dituen heinean beste horrenbeste kiribil ateratzen ditu eta, kiribil bakoitzak lotura bikoitza sortzen duenez, alde guztietatik, ezker eta eskuin, sustengu bati atxikitzen diote. Neskatilek, iruten dutenean, artile-mordo bigunak ardatzean bildu eta hari luzeak, kiribil handiak eginez, biribil ederretan jasotzen dituzte: era berean, kuiaren lokarri alderraiek, beren kate bihurrituez, segituan estutzen eta biltzen dituzte zurmaila borobilduak; eta, kanpoko laguntzarekin, pasabide sakonetako sabai altuak gaintzen ikasten dute, halako igeriketa hegaldun batean.

Eta orain nork goretsi litzake behar bezala adarretatik non-nahi zintzilik dauden fruituak? Alde guztietatik izan dira modelatuak ebaketa zehatzen bidez: ez dira zehatzagoak tornulari baten labanak erditik leundutako egur biribildu bati egiten dizkionak.<sup>10</sup>

Hasieran hari fin batetik zintzilik, sekulako gorputza sostengatzen dute lepo luze eta hestu baten ondoren, zama astunena beheko partera zabaltzen delarik: sabela da guztiaren jaun eta jabe, dena da tripa, eta bere barruan hazi piloa elikatzen dira bakanka kartzela leizetsu batean; hazi hauek hurrengo urteko uzta ziurtatu diezazukete, oraingoaren parekoa.

- 115 *Ne vero insano divelli turbine possit,  
Quot generat nodos, tot iam retinacula trudit,  
Et quoniam duplicem producunt singula funem,  
Undique futuram dextra levaqueprehendunt,  
Et velut in fusum nentes cum pensa puellae*
- 120 *Mollia traiciunt spirisque ingentibus omnem  
Filorum seriem pulchros metantur in orbem,  
Sic vaga tortilibus stringunt ammenta catenis  
Scalarum teretes involvuntque ilico virgas,  
Viribus et discutunt alienis tecta cavarum*
- 125 *Ardua porticuum volucris superare natatu.  
Iam quis poma queat ramis pendentia passim  
Mirari digne? quae non minus undique certis  
Sunt formata viis, quam si tornatile lignum  
Inspicias medio rasum, quod mamfure constat.*
- 130 *Illa quidem gracili primum demissa flagello  
Oblongo, tenuisque ferunt ingentia collo  
Corpora, tum vastum laxatur in ilia pondus,  
Totum venter habet, totum alvus, et intus aluntur  
Multa cavernoso seiunctim carcere grana,*
- 135 *Quae tibi consimilem possunt promittere messem.*

Fruituak sasoiko dauden bitartean (barrunbe hestuetan gordeta dagoen hezetasuna udazkenaren etorrera berantiarrarekin desagertu aurretik eta inguruko azala lehortu baino lehen), sarritan ikusten dugu kuia jaki goxoen artean nahastuta, gantz lodiaz bustitzen delarik eta, pusketatan eta mozkortuta, postreei zapore goxoa ematen.

Baina uzten badiogu eguzki udatiarraren hatsa hartzen amaren alboan, eta onduta dagoenean igitaiaz moztu, fruitu berbera landu daiteke edalontzi berrerabilgarriak egiteko, baldin eta horretarako sabel zabalaren barrunbeak ateratzen badizkiogu gubia trebeaz karrakatuta.

Batzuetan haren sabelean sextario<sup>11</sup> bat baino gehiago gordetzen da, neurri oso baten zati handi bat gordetzen du: anfora hau pinuaren erretxinaz bikeztatzen badugu, denbora luzez mantenduko du bere onenean Bako<sup>12</sup> eskuzabalaren oparia.

*Ipsos quin etiam tenero sub tempore fructus,  
Ante humor quam clausa latens per viscera sero  
Autumni adventu rarescat, et arida circum  
Restiterit cutis, inter opes transire ciborum  
140 Saepe videmus, et ardenti sartagine pinguem  
Combibere arvinam, et placidum secmenta saporem  
Ebria multotiens mensis praestare secundis.  
Si vero aestivi sinitur spiramina solis  
Cum genitrice pati et matura falce recidi,  
145 Idem foetus in assiduos formariet usus  
Vasorum poterit, vasto dum viscera ventre  
Egerimus, facili radentes ilia torno.  
Nonnunquam hac ingens sextarius abditur alvo,  
Clauditur aut potior mensurae portio plenae,  
150 Amphora quae, piceo linitur dum glutine, servat  
Incorrupta diu generosi dona Lyaei.*

## VIII Meloiak (*Cucumis melo*)

Baratzearen bazterretan sortzen da nire olerki xume honetan irudikatu berri dudana uzta oparo hau; leku eta aldi berean ikusi daiteke kasta gogorreko beste mahasti mota bat, hautsez estalitako lurrazalean barna narrastu eta fruitu borobilak ematen dituena. Lurraren bizkar lehorretan non-nahi etzanda, fruitu mota honek hazkunde zoragarria lortu ohi du harik eta, udako eguzkiek kolore horixketan tintatuta, uzta-biltzailearen saskiak fruta helduaz bete arte.

Orduan ikusi dezakezu meloi batzuek itxura borobil samarra dutela, beste batzuek berriz tripa handia eta bi muturrak itxura luzexkakoak; badira intxaur edo arraultza itxura aldakorrekoak. Eta beste batzuk xaboi burbuila bat bezalakoak dira hura, gorantz begira jarritako eskuetatik zintzilik dagoelarik, dirdira egiten duenean, listuz blai, ur jarria handitzean apar freskoa agortu baino lehen. Aparra likatsu mantentzen den bitartean —hatzak elkarrekin borrokatzen direla, batak bestea txandaka igurtziaz, biak helburu bakar batekin—, bi eskuen artean irteera txiki bat sortzen da zulo txo baten bidez, hortik igarotzen da —ahoa estuturik— ufadaren indar neurtua, eta haizetxo horrek masa bat harrotzen du beirarekin egiten den modura, eta halako gune irristakor bat sortzen da esku-ahurrek horrela osatzen duten sabaiaren erdi-erdian.

### VIII *Pepones*

- Hoc simul in spatio, campi quo figitur imis  
Haec tam laeta, vili quam carmine pinxi,  
Visitur alterius vitis genus acre per aequor*  
155 *Serpere pulvereum et fructus nutrire rotundos.  
Pomorum haec species terrae super arida vulgo  
Terga iacens crementa capit pulcherrima, donec  
Solibus aestivis flavos intincta colores  
Messoris calathos matura fruge replet.*  
160 *Tum videas aliis teretem satis esse figuram,  
Undique porro aliis oblongo scemate ventrem  
Demissum, nucis aut ovi versatilis instar,  
Vel qualis manibus quondam suspensa supinis  
Lucet agens circum lomenti bulla salivam*  
165 *Ante recens maceretur aquis quam spuma refusus;  
Dum lentescit adhuc digitis luctantibus, et se  
Alternis vicibus studioque fricantibus uno  
Inter utramque manum parvo fit parvus hiatus  
Exitus, huc stricto lenis meat ore Nothi vis,*  
170 *Distenditque cavum vitrea sub imagine pondus,  
Et centrum medio confingit labile fundo,  
Undique conveniat camyri quo inflexio tecti.*

Beraz, labana fruituaren erraietan sartzen denean, zuku erreka luzeak isurtzen ditu haziekin batera: orduan, haren bizkar handitua bere eskuekin zatitan banatuz, mahaikide alaiak baratzeko gutizia emankorrez gozatzen du eta zuritasunak eta zaporeak ahoa ezitzen diote; elikagai honek ez ditu haginak elbarritzen, mamurtzeko eta irensteko erreza izaki, eta freskotasuna elikatzen du erraietan bere berezko indarrez.

*Ergo calybs huius penetrat dum viscera pomi,  
Elicit humoris largos cum semine rivos  
175 Multiplici: tum deinde cavum per plurima tergus  
Frustra manu spargens hortorum laetus opimas  
Delicias conviva capit, candorque saporque  
Oblectant fauces, nec duros illa molares  
Esca stupere facit, facili sed mansa voratu  
180 Vi naturali frigus per viscera nutrit.*

## IX Asentsioa (*Artemisia Absinthium*)

Hurrengo sailak asentsio mikatzaren zuhaixkak haziarazten ditu. Hauek, bere zume malguaz, belarren amarekin<sup>13</sup> dute antza: baina asentsioak beste kolore bat du hostoetan, beste usain bat adar gazteetan eta zaporea ere mikatzagoa du artemisiarena baino.

Frogatutzat jo ohi da egarri amorratua baretzeko eta sukarra uxatzeko bertutea duela.

Bestalde, bapateko min sarkor batek burua hartzen badizu, edo zorabioak jota ahituta baldin bazaude, froga ezazu honen boterea: egosi itzazu asentsio abartsuaren hosto garratzak, bota lapiko handi batera hortik ateratako salda eta busti ezazu horrekin burugaina. Zeure ile finak infusioarekin busti ondoren, ez ahaztu buruaren gainean loturik jartzea landare beraren hosto batzuk: orduan, zapi leun batek eutsi diezaiela horrela babestu dituzun adatei eta, denboraren joanari ordu asko kendu gabe, ahalmen hau mirestuko diozu gainerako bertuteen artean.

### IX *Absinthium*

- Proximus absinthi frutices locus erigit acris,  
Herbarum matrem simulantes vimine lento.  
In foliis color est alius, ramisque odor alter  
Puberibus, longeque saporis amarior haustus.*
- 185 *Ferventem domuisse sitim, depellere febres  
Hoc solet auxilium clara virtute probatum.  
Si tibi praeterea caput acri forte dolore  
Pulsetur subito, vel si vertigo fatiget,  
Huius opem rimare, coquens frondentis amaram*
- 190 *Absinthi silvam, tum iura lebetes capaci  
Effunde, et capitis perfunde cacumina summi.  
Quo postquam ablueris graciles humore capillos,  
Devinctas frondes super imposuisse memento.  
Tum mollis fotos constringat fascia crines,*
- 195 *Et post non multas elapsi temporis horas  
Hoc inter reliquas eius mirabere vires.*

X Lekugia (*Marrubium vulgare*)

Zer esan nezake hemen ondoan kokatutako lekugiaren leinu estimagarriaz eta haren boterearen handitasunaz, ahoan garrazki hozka egin arren eta alde handia egon zaporearen eta usainaren artean.

Izan ere, usain gozokoa da, zapore gozoa izan ez arren; baina bularreko larriminak gelditzen ditu infusio mikatzean hartuz gero.

Bereziki egiten du onura edaria sutan berotua bada eta afaria basokada ugariz bukatzera behartuak baldin bagara.

Noizbait zorigaiztoko amaordeek edarian nahasten badute arretaz bilatu duten pozoia eta alargun-belar<sup>14</sup> goibela jaki amarrutsuekin mozorrotzen badute, lekugi mesedegarriaren infusioak, segituan hartzen baduzu, susmatutako arriskuak ixilduko ditu.

X  
*Marrubium*

*Quid referam iuxta positi nimiumque potentis  
Marrubii non vile genus, licet acrius ora  
Mordeat et longe gustum disiungat odore.*  
200 *Dulce enim olet, non dulce sapit, sed pectoris aegros  
Comprimit angores, tristi dum sumitur haustu.  
Praecipue talis caleat si potus ab igni  
Et coenam cyatis cogatur claudere crebris.  
Si quando infensae quaesita venena novercae*  
205 *Potibus inmiscens dapibusve aconita dolosis  
Tristia confundunt, extemplo sumpta salubris  
Potio marrubii suspecta pericula pressat.*

## XI Mihilua (*Foeniculum vulgare*)

Eta ez bedi isilpean geratu maratzoaren<sup>15</sup> izen ona, zeina altxatzen baita zurtoin indartsu batean eta besoak zabalera luzatzen baititu: aski gozoa gustuan, usain aski gozoa gehitzen du.

Baliagarria dela diote itzalak estutzen dituen begientzako; eta honen hazia, erditu berri den ahuntz baten esneaz hartuz gero, tripetako hanpadura arintzen omen du eta heste berantiarraren atzerapenak ere segituan konpontzen ditu.

Gainera, maratzoaren sustraiak, Bakoren<sup>16</sup> pattarraz nahastuta hartuz gero, ez tul nekagarria uxatzen du.

### XI *Foeniculum*

*Nec maratri taceatur honor, quod stipite forti  
Tollitur, et late ramorum brachia tendit,  
210 Dulce satis gustu dulcem satis addit odorem.  
Hoc oculis, quos umbra premit, prodesse locuntur,  
Huius item semen foetae cum lacte capellae  
Absumptum ventris fertur mollire tumorem  
Cunctantisque moras dissolvere protinus alvi.  
215 Praeterea radix maratri commixta liquori  
Lenaeo tussim percepta repellit anhelam.*



## XII Ezpata-belarra<sup>17</sup> (*Iris germanica*)

Zutaz hitz egiteari ez diot uko egingo: latinaren adierazkortasun libreak izena asmatu baitizu ezpataren<sup>18</sup> izenetik abiatuta.

Zuk sortzen duzu niretzat purpura koloreko loreen ohorea, uda hasieran bioleta ilunen opari zoragarria ekarriaz; zu hiazinto berria bezalakoa zara: hura Apoloren aldare goitiarraren azpian sortu zen, bizargabeko gaztearen heriotzarengatik, eta bere lorearen muturrean haren izena sinatu zuen<sup>19</sup>.

Zure sustraiaren zatiak lehortuta eta xeheetuta ardoarekin nahasten ditugu, eta arte soil horretaz baino ez, maskuriko min oldarkorra ezabatzen dugu.

Bolazainak, zutaz baliatuz, lihozko ehunak zuri-zuriak egiten ditu, baita zurrinak eta usain gozokoak izan daitezen ere.

## XII *Gladiola*

*Te neque transierim Latiae cui libera linguae  
Nomine de gladii nomen facundia finxit.  
Tu mihi purpurei progignis floris honorem,  
220 Prima aestate gerens violae iucunda nigellae  
Munera, vel qualis mensa sub Apollinis alta  
Investis pueri pro morte recens yacinthus  
Exiit et floris signavit vertice nomen.  
Radice ramenta tuae siccata fluenti  
225 Diluimus contusa mero saevumque dolorem  
Vesicae premimus tali non secius arte.  
Pignore fullo tuo lini candentia texta  
Efficit, ut rigeant dulcesque imitentur odores.*

### XIII Mendi-apioa (*Levisticum officinale*)

Baratzeñoari diodan maitasun handiak, zuhaixka usaintsuen artean, mendi-apio indartsua aipatzera bultzatzen nau.

Uste izaten da landare honen ernamuinek, zukuaz eta usainaz, begiak kaltetu eta ilunpetara eramaten dituztela: landare honen hazi txikiak, ordea, beste erremedio batzuei gehitu ohi zaizkie, ospea beste landare batzuek eramaten dutelarik.

### *XIII Lybisticum*

230 *Inter odoratam memorare lybistica silvam  
Fortia, suadet amor parvi diffusior horti.  
Hoc germen suco quamvis et odore gemellis  
Orbis officere et tenebras inferre putetur,  
Semina saepe tamen quaesitis addere curis  
Parva solet, famamque aliena laude mereri.*

#### XIV Perrexila (*Anthriscus cerefolium*)

Erato<sup>20</sup>, zuk sortu dituzu, zeure aho agurgarriaz, zintzo, hainbeste gudaren eta hainbeste ekintza ohoragarriren lekuko entzutetsuak: ez iezaiozu muzin egin nirekin batera kantatzeari nire baratzeko aberastasun meharrak.

Mazedoniar hau<sup>21</sup> adar ahuletan banatuta sakabanatzen da eta hazi xume bat gordetzen du buruxka ugarietan: hala ere, urte osoan zehar iraunkor, plebe behartsuaren txirotasuna leuntzen du bere opari eskuzabalaz; bestalde, gorputzean zehar barreiatu-odol uhinak menperatu ohi ditu aise bere zapore onez.

Hark ere, sabela min latz eta kaltekor batek jota dabilenean, gainean jartzeko alferrikakoak ez diren kataplasma eskaintzen ditu, landare usaintsuari lo-belarraren hostoak gehituaz.

#### XIV *Cerfolium*

- 235 *Quae tot bellorum, tot famosissima rerum  
Magnarum monimenta sacro pia conficis ore,  
Exiles, Erato, non dedignare meorum  
Divitias holerum versu perstringere mecum.  
Infirmis divisa licet Macedonia ramis*
- 240 *Spargitur, et crebris ignobile semen aristis  
Sufficit, illa tamen toto reparabilis anno  
Pauperiem largo solatur munere plebis  
Indiguae, nec non restringere sanguinis undas  
Corpore diffusas facili solet obvia gustu.*
- 245 *Illa quoque infesto venter dum forte dolore  
Turbatur, fomenta super non irrita ducit,  
Puleium sibimet frondesque papaveris addens.*

XV Zitori arrunta (*Lilium candidum*)

Zer bertsoan, nolako olerkirekin goratu litzake behar adina zitori zuriak ene Musa hamikatuaren mehartasun idorrak?

Hauen zurtasunak elur-distiraren itxura du, usain gozoak Sabako<sup>22</sup> basoak dakarzkigu gogora loretan daudenean.

Paroseko<sup>23</sup> harriak bere zurtasunean, eta akarak<sup>24</sup> bere usainean ere, ez dituzte gainditzen gure zitoriak; eta suge zital batek, berezko maltzurkeriaz, zorigaitzoko ahoaren bitartez hor zehar bildutako pozoia sartzen badizu, ezkutuko zauritik herio krudela bihotzaren barrenera bidaliaz, baliagarria da oso zitoriak zaparri gogorrean beratu eta zuku horiek falernoarekin<sup>25</sup> hartzea.

Eta xehetutako hori ubelduaren kanpoko aldean jartzen badugu, orduan agerian geldituko da berez sendabide honen gaitasun paregabea.

Enplastu hau onuragarria da orobat gorputz-adar elbarrituentzat.

XV  
*Lilium*

*Lilia quo versu candentia, carmine quove  
Ieiunae macies satis efferat arida Musae?  
250 Quorum candor habet nivei simulacra nitoris,  
Dulcis odor silvas imitatur flore Sabeas.  
Non Parius candore lapis, non nardus odore  
Lilia nostra premit, necnon si perfidus anguis  
Ingenitis collecta dolis serit ore venena  
255 Pestifero, caecum per vulnus ad intima mortem  
Corda feram mittens, pistillo lilia praestat  
Commacerare gravi sucosque haurire Falerno.  
Si quod contusum est summo viventis in ore  
Ponatur puncti, tum iam dinoscere vires  
260 Magnificas huiusce datur medicaminis ultro.  
Haec etiam laxis prodest contusio membris.*

## XVI Lo-belarra (*Papaver somniferum*)

Eta ene zirtzilkerien zati honetan, Zeresen<sup>26</sup> lo-belarra gogora ekartzea atsegin zait: esan ohi baita Latona<sup>27</sup> amak, neskatilaren bahiketagatik nahigabetuta, landare hau irentsi zuela antsiatutako ahanzturak samintasun etengabeetatik askatu zezan.

Badirudi ere honen laguntzaz, askotan, lupu beltz<sup>28</sup> ankerra geldiarazi daitekeela, zeinak korroskada ikaragarri garratzak ekartzen baititu bularraren hondotik ahoaren sarreraraino.

Honen burua, hazien aleez beterik, altueretarantz altxa ohi da bere lepo luze eta hauskorra luzatuz eta, Kartagoko<sup>29</sup> lurraldeak izena ematen dion fruituaren antzera, azal bakarreko estalpe zabalaren barruan sekulako ale pila gordetzen ditu, dohain goragarriko aleak; eta izena murtxikatzean sorrarazten duen soinuagatik jasotzen du.

### XVI *Papaver*

*Et Cereale quidem nugarum in parte papaver  
Hac memorare placet, quod raptu mesta puellae  
Mater, ut immensis optata obliviam mentem  
265 Exuerent curis, fertur Latona vorasse.  
Hoc simul auxilio carbunculus ater, ab imo  
Pectore qui ructus nimium convolvit amarus  
Oris adusque fores, reprimi persaepe videtur.  
Huius ad alta caput granorum semine fetum  
270 Protento fragilique solet se tollere collo,  
Inque modum mali, regio cui Punica nomen  
Indidit, unius patulo sub pellis amictu  
Grana celebrandae virtutis plurima claudit,  
Deque sono mandentis habet formabile nomen.*

## Oharrak

1. Paestum, Campanian (Italia) dagoen jatorri greziarreko hiria, antzinarotik zen ezaguna sendabelar eta bereziki arrosen laborantzagatik. Bertatik 40 bat kilometrotara, Salernon IX-X mendetik aurrera Erdi Aro osoan erreferentziatzkoa izango den mediku eskola garrantzitsu bat garatu zen; bertan Hipokrates, Galeno eta Diskoridesen lanak itzuli ziren latinera (Gennari 2017: 1).
2. Mitologiaren arabera Priapo naturaren emankortasunaren jainkoa da, horregatik da bereizgarria bere zakilaren tamaina. Ohikoa zen bere irudia antzinako Erromako lorategietan jartzea, fruta lapurrak uxatzeko batik bat (Grimal 1986: 453).
3. Antzinaro Klasikoan norabide desberdinetako haizeak gurtu egiten ziren. Zefiroa, mendebaldeko haize leuna, udaberriaren etorreraren adierazgarri zen (Grimal 1986: 236).
4. Tradizio Klasikoak Saturnori egozten dio gizakiari segan erakutsi izana, eta igitai edo segarekin irudikatu izan ohi da. Walafrido kasu honetan —testuinguruagatik— aitzurrari buruz ari dela dirudi (Grimal 1986: 475).
5. Hego haizea (Grimal 1986: 383).
6. *Ἐλελίσφακος*, salbiaren izen greziarra, erabiltzen du hemen Walafridok (hala azaltzen du L eskuizkribuaren glosa batek). *L* eta *K* eskuizkribuek *elelifagus* jasotzen dute, *C*-ek *lelyfagus* ordea (Barabino 1975: 178 eta Berschin 2007: 76).
7. *L* eskuizkribuak “quod in se crescit, habet” dio “tolerat” aditzaren adiera zehazteko (Berschin 2007: 80). Bertso hau Karlomagnoaren oinordekoen arteko liskarren erreferentzia bat izan daitekeela dirudi (Jacobsen 2003: 112).
8. Febo eguzkiaren jainkoa den Apoloren epitetoetako bat da. *Φοῖβος*-ek ‘argiduna’, ‘dirdiratsua’, ‘gardena’ esan nahi du. Hortaz, Feboren izpiak eguzkiaren izpiak dira (Grimal 1986: 195).
9. Testuan “poeoniis”, *Apollo Paeon*-i erreferentzia eginez. *Παιών*: Apolori, sendatzaile moduan eskainitako kantuak ziren. Homero-rengan jainkoen sendagilea da Apolo (Grimal 1986: 195).
10. 129. bertsoa bereziki zaila da itzultzen, eta beste hizkuntzetan ematen diren itzulpenek irtenbide desberdinak aukeratzen dituzte. *L* eskuizkribuko glosetako batek honako hau dio: “Mamfur est lorum tornatoribus aptum, sed hic pro ipso ferro ponitur” (Berschin 2007: 129).
11. *Sextarius* bat 0,54 litro da gutxi gora behera (Vélez 2018:26).
12. Jatorrizko testuan *Lyaei*, Bakoren epitetoetako bat; *λύειν* aditzetik eratorria, hau da: askatzailea (Gennari 2017: 18).

13. Bere garrantzi eta antzinatasunarengatik *belarren ama* deitu izan zaio artemisiari (*Artemisia vulgaris*). Lakoizketak (1888: 105) *belar-miña* ere deitzen dela jasotzen du.
14. *Aconitum napellus*: *ira-belarra*, *pozoiduna* eta *otseria* dira landare hau izendatzeko modu batzuk; nabaria da landarearen arriskuari erreferentzia egiten diotela izendapen hauek (Lakoizketa 1888: 47).
15. *L* eskuzkribuan jasotako glosa batek zehazten du *μάραθρον* mihiluaren izen greziarra dela (Berschin 2007: 208).
16. Jatorrizko testuan “Lenaeo”, *ληνός* hitz greziarretik dator: “ardo egiteko dolarearekin erlazioa daukana” esan nahi du, Bako jainkoari erreferentzia eginez. *L* eskuizkribuaren glosa batek honako hau zehazten du: “id est: vino, quod leniter intret” (Berschin 2007: 216).
17. Lakoizketak (1888: 163) lirio arruntarentzako (*Iris germanica*) jasotzen dituen izenen artean *ezpata-belarra* bere inguruan oso ohikoa dela dio (izena hostoek duten itxuragatik delarik). *Uztargibelarra* da hartzen duen beste izen bat.
18. Latinez *gladiolum*-ek ‘ezpata txikia’ esan nahi du.
19. Mitologiak Hiazintoren heriotza kontatzen digu. Apolo mutil honen edertasunaz zeharo maitemindurik zegoen, eta diskoa jaurtikiz biak jolasten ari ziren egun batean, haizeak diskoaren norabidea aldatu eta arroka baten aurka kolpatu ondoren Hiazinto jo zuen buruan, bertan akabatuz. Apolok, hunkiturik, mutilaren odola lore berri bat bilakatu zuen, hiazintoa, eta honen lore-hostoek Apoloren aienea gogorarazten duten zeinu bat daukate: AI (oihuarengatik) eta Y (Hiazintoren izenaren lehenengo hizkiarengatik) (Grimal 1986: 265).
20. Erato, Zeus eta Mnemosinaren alaba, bederatzi musetako bat da. Olerkigintza lirikoa da batik bat bere esparrua, batez ere amodiozkoa (Grimal 1986: 165).
21. Walafri dok perrexilari mazedoniar jatorria egozten dio.
22. Saba Arabia hegoaldeko eskualde bat zen, antzinaroan *Arabia Felix* izenez ezaguna eta intsentsuan oso aberatsa (Gennari 2017: 57).
23. Paros Zikladetako uharte bat da, marmol zuriko harrobiengatik antzinarotik ezaguna.
24. *Nardostachys grandiflora* bere loreen usain lurrintsuengatik ezaguna. Erromatarrek antzinaroan esentzia bat prestatzen zuten landare honen errizomarekin, otordu berezietan erabiltzeko (Vélez 2018: 48).
25. Campanian egiten zen Falernoko ardo beltza, estimatuenen artean zegoen hau antzinaroan.

26. Zeresek, nekazaritzaren jainkosa erromatarrak, bere alaba Proserpinaren bahiketak sortutako minak ahanzteko lo-belar haziak hartu omen zituen (Grimal 1986: 131).
27. *Latona* hitzak Letori —Apolo eta Dianaren amari— egin ohi dio erreferentzia. Baina Walafriidok Ceres Letorekin nahasi duela iritzi dio Vélez-ek (2018: 48)
28. Gizakietara kutsatu daitekeen animalia belarjaleen gaitza (Gennari 2017: 39).
29. Mingranondoa izendatzeko beste modu bat, izen zientifikoa *Punica granatum* baitu.



## Bibliografia

- Barabino 1975 = Barabino, G., “Le fonti classiche dell'*Hortulus* di Valafrido Strabone”, in *I classici nel Medioevo e nell'Umanesimo, Miscellanea filologica*, Istituto di Filologia Classica e Medievale, Genova, 1975, 175-260.
- Berschin 2007 = Berschin, W., *Walahfrid Strabo, De cultura hortorum (Hortulus)*, Mattes Verlag, Heidelberg, 2007 («Reichenauer Texte und Bilder», 13).
- Bisanti 2018 = Bisanti A., “Versus aurei nella poesia di Walahfrido Strabone”, *Schede medievali*, 56 (2018), 151-179.
- Brunhölzl 1991 = Brunhölzl, F., *Histoire de la littérature latine du Moyen Âge. I. De Cassiodore à la fin de la Renaissance carolingienne. 2. L'époque carolingienne*, trad. H. Rochais, Brepols, Turnhout, 1991 [jatorrizko edizioa 1975]
- Eco 2003 = Eco, U., *Decir casi lo mismo*, Penguin Random House, Barcelona, 2008
- Gennari 2017 = Gennari, M., Walahfrid von Reichenau, *Hortulus. Coltura e cultura del giardino*, Il Melangolo, Genova, 2017.
- Grimal 1986 = Grimal, P., *Diccionario de la mitología griega y romana*, Paidós, Barcelona, 1986.
- Jacobsen 2003 = Jacobsen, P. Ch., “Il secolo IX”, in Leonardi, C. (ed.), *Letteratura latina medievale. Un manuale*, Sismel-Edizioni del Galluzzo, Firenze, 2003.
- Lakoizketa 1888 = Lakoizqueta, J.M. de, *Diccionario de los nombres euskaros de las plantas en correspondencia con los vulgares, castellanos y franceses y científicos latinos*, Imprenta provincial, Pamplona, 1888.
- Mitchell 2009 = Mitchell J., *On the cultivation of gardens, a ninth century gardening book by Walahfrid Strabo*, Ithuriel's Spear, San Francisco, 2009.
- Raby 1934 = Raby, F. J. E., *A history of secular Latin poetry in the Middle Ages*, Oxford University Press, Oxford, 1934.
- Stella 2009 = Stella F., “Introduzione”, in Id., *Valafrido Strabone, Visione di Vetti*, Pacini, Pisa, 2009.
- Vázquez de Parga 1948 = Vázquez de Parga L., “Literatura latina medieval”, *Revista de la Universidad de Oviedo*, 57-58, (1948), 5-24.
- Vélez 2018 = Vélez X. M., *Hortulus (Herbario medicinal do Mosteiro de Reichenau)*, Rinoceronte Editora, Cangas do Morrazo, 2018
- Vinçon 2003 = Vinçon, P., “Traduzione intersemiotica e racconto”, in Eco (2003:426)


# Gehigarria

## Sankt Gallen abadiako planoak

Sankt Gallen-go liburutegian monasterio karolingiar idealaren plano bat gordetzen da (St. Gallen, Stiftsbibliothek, Cod. Sang. 1092). Tinta gorri eta beltzez marraztu zen 825. urtearen inguruan, eta arkitektura oinplano zaharrenetakotzat jotzen da.<sup>15</sup>


Sekula eraiki ez zen monasterio karolingiar honetan, esparru burujabe izateko beharrezkoak diren osagarrien banaketa irudikatzen da: eliza, bizitokiak, ukulua, liburutegia, baratzea, sendabelarren baratzea, eskola, okindegia, upategia, hilerria, etab.

Berezitasun modura, aipagarria da planoan *Hortulusen* deskribatzen diren parterreekin antza eduki dezakeen gune bat marrazten dela.



2. Sankt Gallen-go oinplanoa (112 x 77 cm.).

<sup>15</sup> [http://www.stgallplan.org/en/horn\\_born.html](http://www.stgallplan.org/en/horn_born.html)



3. Sankt-Gallen-go oinplanoaren berregite bat<sup>16</sup>. Goian lorategiaren kokapena ikus daiteke.

<sup>16</sup>[https://www.researchgate.net/figure/Figura-3-Plano-de-St-Gallen-Sao-Galo-Suica-820-dc-Fonte-Adaptado-de-Geary-et-al\\_fig2\\_321099791](https://www.researchgate.net/figure/Figura-3-Plano-de-St-Gallen-Sao-Galo-Suica-820-dc-Fonte-Adaptado-de-Geary-et-al_fig2_321099791)

IV *Salvia* (*Salvia officinalis*, *Salvia tomentosa*)



V *Erruda* (*Ruta graveolens*)



<sup>17</sup> Marrazkiak Vélez-en (2018) itzulpenetik atera ditut. Argazkiak aukeratzeko honako orrialde hauek erabili ditut gehienbat: <https://antropocene.it/es/category/specie-vegetali/> eta <https://www.ethnoplants.com/es/> [2020/05/2]

VI *Zizare-belarra (Artemisia Abrotanum)*




---

VII *Kuia (Cucurbita lagenaria)*



VIII *Meloiak (Cucumis melo)*



IX *Asentsioa (Artemisia Absinthium)*



X *Lekugia (Marrubium vulgare)*



XI *Mihilua (Foeniculum vulgare)*



XII *Ezpata-belarra (Iris germanica)*



XIII *Mendi-apioa (Levisticum officinale)*





XIV *Perrexila (Anthriscus cerefolium)*



XV *Zitori arrunta (Lilium candidum)*



XVI *Lo-belarra (Papaver somniferum)*

